

Batzorde Paritarioaren bilera: Zorraren 1go ordainketa egiteko akordioa gertu dago

Atzo, ekainak 13, Batzorde Paritarioaren bilera berri bat izan genuen eta azkenean, dirudienez, pausuak norabide egokian eman dira. Patronalak eta sektorean gehiengo duen sindikatuak proposamen zehatza mahai gainean jarri zuten non 2016 urtean eta hurrengoetan ordaindu behar den zorra kalkulatzeko Akordio Transakzionalak jarraitu behar dituen irizpideak markatzen ditu.

steilas-ek erreklamatu duen moduan, finantziazioaren igoeraren kalkuluan hurrengo kantitateak barruan sartuko dira: ikastetxeek 2015eko azken lau hilabeteen ordezkapenentzat jaso zuten %1 igoera eta 2016ko moduloetan gehitutako kantitate osoak ordezkapenak, orientatzaile-kontsultore eta ez dozenteen ataleetan, kuota patronala barne, azken horrek %30,9 diru gehiago suposatzen du.

Aintzat hartuko diren aurtengo egoera bereziei dagokienez (ikastetxearekin lan harremanik ez duen langileen zorra osoa kitatzea eta 2012ko zorraren ordainketaren atzeratzea lan hitzarmen osoaren iraunaldia aurreratzeko), honako prozesua burutzea proposatu dute:

- 1.- Aurten, ohiz kanpoko moduan, abiapuntua izango da ikasgela bakoitzeko moduluan handitutako zenbateko guztia. Batzorde Paritarioak adostuko ditu erreferentziazko taulak ikastetxeentzat.
- 2.- Ikastetxe bakoitzak kalkulatu du, ikasgela kopurua kontuan izanik, zein den berari dagokion zenbateko guztia. Langileen ordezkariak onespina emango diote kalkuluari.
- 3.- Diru kopuru horretatik, ikastetxeak kenduko du ikastetxearekin lan harremanik ez duen langileen - erretreta, lanerako ezintasuna edo heriotzagatik ez direnak- zorra ordaintzeko erabilitako diru kopurua. Langileen ordezkariak onespina emango diote kalkuluari.
- 4.- Geratzen den kopurua zorra ordaintzeko erabiliko litzateke, zaharretatik hasita eta urteka. Urtebete osoko zorra ordaintzeko dirurik ez balego langile guztiei zati bat ordainduko zaie; dagoen dirua eta epe horretako zorraren arteko proportzioan.

Datozen urteetako irizpideei dagokienez, aurkeztu ziguten proposamena antzekoa da, Akordio Transakzionalak diotenari jarraituz. Zorra ordaintzeko dirua kalkulatzeko zentroek finantziazioa igoeraren bidez jasotakoari kenduko zaio 2009ko lan hitzarmenak jasotako lan sarien eta Ordainketa eskuordetuak jasotakoaren arteko diferentzia.

steilasek bere harridura adierazi zuen kalkulua egiteko 2009ko lan hitzarmeneko lansarrietan kuota patronala sartuta zegoelako, horrek ekarriko baitu urteko zorra ordaintzeko diru kopurua txikiagoa izatea.

Aurreikusi zitekeenez, atzeratu egingo da, beste behin, zorraren ordainketa eta litekeena da uztaila eta urria bitartean egin ahal izatea.

Baliteke egun batzu barru akordio sinatzea aurkeztutako proposamenak jasotzen duen baldintzetan. Jakinaren gainean izango zaituztegu.